

BIZKAIKO IBIAIAK - RÍOS DE BIZKAIA

2002. urtean argitaratutako liburu honen helburu nagusia Bizkaiko ibaiak, eta bereziki bere flora eta fauna, ezagutzen laguntzea da. Bertan bizitza hori egoteko beharrezko diren baldintzak deskribatuta daude, baita guztiz garatzea eragozten duten perturbazioak ere.

Liburua bi ataletan banatuta dago. Lehenengoan (1-4 kapituluak) ibaien limnologiaren hastapenak jasota daude eta ibaien ezaugarri fisiko, kimiko eta biologikoak deskribatzen dira.

Bigarren atalean (5. kapitulua), berriz, arro nagusi bakoitzaren ezaugarri fisikoak, kimikoak eta biologikoak deskribatzen dira. Azkenik, 6. atalean, arroen arteko alderaketa dago. Horrela bada, atal honetan aldean ezarrita daude bere ezaugarri naturaletan zein duten alterazio mailan oinarriturik.

Flora eta fauna urtean zehar aldatzen direla kontuan harturik, baliteke ibaia bisitatzeko unean arro bakoitzari dagokion atalean deskribatuta ageri dena zehazki ez aurkitzea, organismoen bestelako multzoa baizik, momentu horretan dauden baldintza fisiko, kimiko eta biotikoekin orekan, eta ziur aski deskribatutako beste tipoetako baten batekin bat etorriko dira.